



## 2026/2 OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2026ko otsailaren 26an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña  
Aitor Manterola Garate  
Marina Bidasoro Arozena  
Asier Arakistain Alberdi  
Maite Egaña Larrañaga  
Unai Larrañaga Uranga  
Nerea Goiria Mendiolea  
Itziar Etxabe Etxabe  
Joxe Mari Azkue Castillo  
Jose Miguel Antia Albizu  
Ainhoa Illarramendi Azkue  
Iker Mardaras Arrieta  
Xabier Odriozola Etxaniz  
Mireia Aranbarri Ieregi  
Ander Olaizola Esnal  
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratutakoak: -

Idazkaria: GORKA URGOITI AGUIRRE

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Arratsalde on, seirak puntuak hasiera emangoiou. Eguneko aztergaiekin hasi aurretik, Gorka, ongi etorria berriro ere. Ya ezagutzen gea. Danok ezagutzen gea, ez? Ez? A, aurreko legealdian jun zinan? Lau urte ya? Bueno, ongi etorri berriro re. Bueno, hasiko gea.

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

#### 1.-AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

2026/1 (2026.01.29) urtarileko Ohiko Osoko Bilkurako aho batez onartu dute.



## 2.- IRIZPENA

### 2.1.- 2026KO ORDENANTZA FISKALEN 1.GO ALDAKETA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2026ko otsailaren 18ko Antolaketa Batzordean (Ogasuna) 2026. urterako ordenantza fiskalen 1.aldaketaren proposamena aurkezten da, bi proposamenez osatua:

-Gizarte zerbitzuetako proposamena: Gizarte zerbitzuetatik proposamena jaso da itsas argi zerbitzua arratsaldetan eskaintzeko eta Hogar tabernan, etxeetarako menua eskaera bakoitzeko euro bat gehitzeko.

-Kultura saileko proposamena: kultur sailetik proposamena jaso Turismo bulegoko produktuen salmenta atalean liburu berri bat jasotzeko.

Jarraian, 2026ko ordenantza fiskalen 1.aldaketaren behin betiko onespenerako irizpenaren bozketa egin da.

Irizpen honi 2026ko Ordenantza Fiskalen 1.aldaketaren proposamena eransten zaio.

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2026ko otsailaren 18an, Antolaketa Batzordeak (ogasuna) aldeko irizpena jaso du hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 5 (3 EH-BILDU, 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Honako PROPOSAMEN hau udalbatzako Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Hasierako onarpena ematea 2026.urterako Ordenantza Fiskalen 1.aldaketari, eta uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 16. artikulua arabera, udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu eta GAOn argitaratu hogeita hamar egun balioduneko epean zehar.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaian, 2026ko otsailaren 18an

Batzordeburua

Diruzaina

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Unai, azaltzen baldin badiguk momento batian.

UNAI LARRAÑAGA URANGA:

Bai, bueno, 3 aldaketatxo ekartzen ditugu. Lehenengo itsas argi zerbitzua arratsaldetan eskaintzeko zerbitzua jartzen deu orduka. Orduan hori aparte ordainduko litzateke hor jartzen dun prezian. Bigarren aldaketa Hogar tabernan etxeetarako menu eskaera



aukera jarri, euro bateko gehigarri batekin. Eta azkenik turismoko urismo bulegoko produktuen salmenta atalean liburu berri bat sartzea: Fysch pop-up albuma, Irene Iruretarena, 25 euroko salneurrian.

Hiru aldaketa hauek die irizpenakin dakarzkigunak. Batzordian bai komentatu genula MUGIna ere nolabait sartuko zala baina horrek lanketa haundiaua dakarki. Ordenantzatik derogatu ber da ta precio publiko bitartez jun berko litzake. Lanketa hori uain hasi deu. Hurrengo plenorako edo ekarriko genuke. Orduan, bozkatzen dan irizpenean hiru hoiek dia danak batera.

INAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Unai. Zerbait komentatzeko? Bozkatu ingo degu.

**Aldeko botoak: 17 (10 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

2026KO ORDENANTZA FISKALEN 1.GO ALDAKETA BEHIN BEHINEKOZ ONARTZEA.

### **3.- MOZIOAK**

#### **3.1.- SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN 50. URTEURRENA: SAHARAR HERRIAREN DETERMINAZIO ASKERAKO ESKUBIDEARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA.**

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) aldarrikapenaren 50. urteurrenarela eta:

Nazio Batuen Gutunaren helburu eta printzipioek gidatuta, bereziki 1. eta 55. artikuluetako xedapenek, zeinek herrien erabaki askerako eskubidea aldarrikatzen duten,

Halaber, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 1. Artikuluaren eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 1. artikuluen xedapenek gidatuta, zeinetan herri guztiek determinazio librerako eskubidea dutela baieztatzen den,

Gainera, Herrialde eta Herri Kolonialei Independentzia Emateari buruzko Adierazpenak, bereziki haren 1. artikulua, eta Giza Eskubideen Mundu Konferentziak onartutako Vienako Adierazpenaren eta Ekintza Programaren xedapenek, bereziki, I. zatiko 2. eta 3. paragrafoek, herrialde guztien, bereziki atzerriko okupazioaren mende daudenen determinazio askerako eskubideari buruzkoek gidatuta, Saharar herriari dagokion determinazio askerako eskubidea berretsiz eta nazioarteko zuzenbidearen arau inperatibo hori eskualdean bake justu, iraunkor eta orokorra lortzeko funtsezko baldintza dela nabarmenduz, Nazioarteko zuzenbidearen arabera saharar herriak independentziaren alde, lurraldeosotasunaren alde, batasun nazionalaren alde eta



menderakuntza kolonial eta atzerrikotik askatzeko egindako borrokaren zilegitasuna berretsiz,

Determinazio askerako eskubidearen osagai den baliabide naturalen gaineko subiranotasun iraunkorraren printzipioa kasu honetan aplikagarria dela baieztatuz eta Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzea eta espoliatzea babesten eta lurraldea zatitzen duen legez kanpoko harresi bat mantentzea bateraezina dela nazioarteko zuzenbidearen arabera dagozkion betebeharrekin gogoratuz,

Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuei dagokienez Marokorekin harreman ekonomiko edo komertzialak dituzten estatu eta erakundeek, horrela, baliabide naturalak legez kanpo espoliatzen eta saharar herriak determinazio askerako duen eskubidea ukatzen laguntzen dutela deitoratuz,

Enpresa batzuek, zuzenean edo zeharka, Marokok Mendebaldeko Sahara okupatzea ahalbidetu eta erraztu dutelako, eta horretatik etekinak atera dituztelako kezka adieraziz

Saharar errefuxiatuen egoera zaila deitoratuz, eta errefuxiatu-eremuan bizitzera behartuta dauden sahararrei laguntzeko, genero-ikuspegia aintzat hartzen duen lankidetzeta eta ekintza humanitarioarekin dugun konpromisoa sendotuz, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan zigorgabetasun osoz burutzen diren giza eskubideen urraketa orokortuak deitoratuz,

1. Berresten du Saharako herriak autodeterminazio askerako duen eskubide besterenezina, iraunkorra eta baldintzarik gabekoa; askatasunean, justizian eta duintasunean bizitzeko eskubidea eta estatu independente baterako eskubidea barne.

2. Berretsi egiten du saharar herriak bere aberastasun eta baliabide naturalen gaineko subiranotasun iraunkorra izateko duen eskubidea bere garapen nazionalaren eta saharar herriaren ongizatearen mesedetan eta determinazio askerako eskubidea gauzatzeko erabili behar dela.

3. Eskatzen dio Marokori, potentzia okupatzaileari, berehala amai dezala okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldean duen legez kontrako presentzia, zeina legez kontrako egintza jarraitua baita, nazioarte mailan erantzukizuna sorrarazten duena, eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren independentzia politikoa, subiranotasuna eta lurralde-osotasuna eragozten dituzten oztopo guztiak bertan bera utzi eta konpon ditzala; eta eskatzen du amai daitezela gaur egungo jazarpen, mehatxu, larderia eta errepresalia, askatasun gabetze eta kanporatze politika guztiak, saharar herriaren eskubideen alde era baketsuan egiten duten giza eskubideen defendatzaileen eta gizarte zibileko eragileen aurka.

4. Adierazten du Saharako preso politikoek Marokoko kartzeletan dituzten bizi baldintzen inguruko kezka handia, eta nazioarteko zuzenbidea urratuz preso dituen saharar guztiak berehala aske uzteko eskatzen dio Marokori.



5. Erregutzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari, legez dituzten betebeharrengatik ez aitortzeko, ez onartzeko eta ez laguntzeko Marokok egiten dituen nazioarteko zuzenbidearen arauen urraketa larriak, bereziki, lurraldea indarrez eskuratzeko debekuari dagozkionak, saharar herriaren determinazio askerako eskubidearen baliatzea ziurtatzeko.

6. Eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari beharrezko neurriak har ditzatela saharar herriaren determinazio askerako eskubidearen eraginkortasuna sustatzeko, eta helburu horrekin, laguntza eman diezaietela Nazio Batuei eta Nazio Batuen Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Misiolari (MINURSOri).

7. Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari eskatzen die beharrezko neurriak har ditzatela Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2024ko urriko epaiak betetzen direla bermatzeko. Epai horietan, jurisprudentziaren arabera eta autodeterminazio-eskubidearen eta tratatuen eragin erlatiboaren printzipioak oinarri hartuta, argi eta garbi ezartzen da arrantzaren eta nekazaritza-produktuen arloko 2019ko EBren eta Marokoren arteko merkataritza-akordioak, Mendebaldeko Saharako herriak onartu ez zituenak, autodeterminazioaren eta tratatuen eragin erlatiboaren printzipioak urratuz egin zirela.

8. Eskatzen dio Espainiako gobernuari argi eta garbi eta behin betiko adieraz dezala saharar herriak bere autodeterminaziorako duen eskubidea, eta printzipio horren aurkako araudi guztiak, hala nola 1975eko hiruko akordioak edo deskolonizazio frankistaren legea, ezaba ditzala. Eta, eskubide hori gauzatzen ez den bitartean, estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte POLISARIOAREN Espainiako ordezkariari, saharar herriaren ordezkari bakar eta legitimo gisa.

9. Eskatzen dio Espainiako gobernuari, era berean, Europar Batasunaren eta Nazio Batuen barruan behar diren ekimen politiko eta diplomatiko guztiak susta ditzala, lurraldearen legez kanpoko okupazioari amaiera emateko eta Nazio Batuen Bake Planean oinarrituta irtenbide justu eta behin betikoa lortzeko.

10. Konpromisoa hartzen du Mendebaldeko Saharako lurraldean edo Sahararekin lotutako edozein jarduera ekonomiko ez egiteko, finantzatzeko edo errazteko, baldin eta lurralde horretako herriak, bere ordezkari legitimoaren bidez, Fronte POLISARIOAREN bitartez, baimen librea, alde aurretikoa eta informatua eman ez badio.

AITOR MANTEROLA GARATE:  
Mozioa irakurri du.

**Aldeko botoak: 17 (10 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN 50. URTEURRENA: SAHARAR HERRIAREN DETERMINAZIO ASKERAKO ESKUBIDEARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA.



### 3.2.- EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA ONARTZEA.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrekarekin dugun konpromisoa irmoki berresten dugu. Printzipio demokratiko hori ukazina da, eta gizarte justu, aske eta kohesionatu baten funtsezko zutabea.

Azken urteotan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun estrukturala ukatzen duten, indarkeria matxista zalantzan jartzen duten eta feminismoa mehatxu bat balitz bezala gutxiesten duten diskurtsoen aurrerapen kezkarri bat ikusten dugu komunikabideetan, sare sozialetan eta, modu are eta kezkarriagoan, giza harremanetarako eguneroko espazioetan.

Izan ere, nola esan daiteke feminismoa urrunegi joan dela oraindik ere soldata-arrakala, sektore feminizatuen prekarizazioa edota erailketa matxistak pairatzen ditugunean? Horrek erakusten du desberdintasunak eta egiturazko botere-harremanak desagerrarazteko borrokan jarraitu behar dugula.

Horregatik, gaur, ahotsa irmo altxatzen dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzeko eta aldarrikatzeko.

Historian zehar berdintasunaren aurrerapenen aurrean gertatu den bezala, mugimendu feministaren aurkako jarreraren geraldian gaude gaur egun, diskurtso erreazionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarizko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute. Feminismoaren aurkako diskurtsoak erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua osatzen dute, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua. Hamarkadetan kolektiboki borrokatuz eta lan eginez lortu duten eskubidea da emakumeek, Mugimendu Feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko.

Feminismoa defendatzea berdintasun-politiken zentraltasuna bermatzea eta beharrezko baliabideez hornitzea ere bada. Emakumeek eta disidentziek beren segurtasuna, autonomia edo gizartean duten erabateko parte-hartzea zalantzan jartzen ez dela bermatzea. Horregatik, berretsi nahi dugu eskubideen defentsan, indarkeria matxista mota guztiak desagerraraztearekin eta negazionismoaren aurrean atzera egiten ez duten eta autoritarismoaren aurrean amore ematen ez duten politika publikoen defentsarekin dugun konpromisoa.

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak baztertzeko dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizartea aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Izan ere, ozen eta garbi esaten dugu berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dagoela askatasunik.

Martxoaren 8an, Zumaia Udalak dei egiten die herritar guztiei eta erakunde guztiei batuta eta elkartuta irmo egon gaitzen lortutako eskubideak defendatzeko eta, atzera pausurik gabe, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko.

Horregatik, Zumaia Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Baliabideak eta egiturak zaintzea, babestea eta indartzea, gure udalerrian berdintasun-politikek aurrera egiten jarrai dezaten.



- Indarkeria matxista desagerrarazteko bideak jorratzea eta hau pairatu duten emakumeei behar duten laguntza eskaintzea.
- Berdintasun-planaren bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egiten eta emakumeen boteretzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.
- Hezkidetza-mahaia sustatzea eta indartzea, berdintasunean hezten duen herria izateko.
- Aliantzak eta lankidetzak sustatzea Mugimendu Feminista edota tokiko beste eragileekin, berdintasuneko gizarte parekidea lortzeko bideak jorratzen segitzeko, eta bizikidetz-espazioetan eta komunitate birtualetan feminismoaren aurkako jarrerak eteteko.

Horretaz gain, Zumaia Udalak dei egiten die herritarrei bat egin dezaten Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Mugimendu Feministak herrian antolatutako ekimen eta mobilizazioak babestu eta deialdi horietan parte hartzera.

MAITE EGAÑA LARRAÑAGA:  
Mozioa irakurri du.

**Aldeko botoak: 17 (10 EH Bildu, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**  
**Kontrako botoak: 0**  
**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA ONARTZEA.

**4.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA**

**4.1.- 2025EKO 26. ERREPARO ORRIA ETA HAREN EBAZPENA JAKINARAZTEA.**  
**KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (26/2025):**

**AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017



Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

- 1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.
- 5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.
- 6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

- a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.
- b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.



c) Ordainketaren kontu-hartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatuari erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoren eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena



12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedienteen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiu, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.

3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

- a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
- b) Obligazioaren onarpenaren frogagirietan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.
- c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaionean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
-----------------	-----------------	-------------	------------	---------------------



2025/3/31	26FF054276	PHS SERKONTEN S.A.U.	ABENDUA KIROLDEGIKO ETA KOMENTUKO EDUKIONTZI HIGIENIKOAK	322,97
2025/12/31	FOSO-55074	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.	ABENDUA: EGUNEKO ZENTROA ZERBITZUA	39.382,16
2025/11/1	26FF004499 9	PHS SERKONTEN S.A.U.	AZAROA KIROLDEGIKO ETA KOMENTUKO EDUKIONTZI HIGIENIKOAK	322,97
01/11/2025	26FF044959	PHS SERKONTEN S.A.U.	EDUKIONTZI HIGIENIKOAK 2025/11/01-2026/01/31	512,35
				<b>40.540,45</b>

**d) Lankidetzaren hitzarmenean zehaztutako gastuekin ez dator bat**

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
30/12/2025	2025/2089	DEBEGESA	LANKIDETZA HITZARMENA KUDEAKETA GASTUAK 3. ORDAINKETA	26.666,00
				<b>26.666,00</b>

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

**ALKATE EBAZPENA****AURREKARIAK**

2026ko urtarrilaren 16an kontu-hartzaileak honako erreparorria jakinarazi dit (26/2025) Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:



FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2025/3/31	26FF054276	PHS SERKONTEN S.A.U.	ABENDUA KIROLDEGIKO ETA KOMENTUKO EDUKIONTZI HIGIENIKOAK	322,97
2025/12/31	FOSO-55074	EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.	ABENDUA: EGUNEKO ZENTROA ZERBITZUA	39.382,16
2025/11/1	26FF0044999	PHS SERKONTEN S.A.U.	AZAROA KIROLDEGIKO ETA KOMENTUKO EDUKIONTZI HIGIENIKOAK	322,97
01/11/2025	26FF044959	PHS SERKONTEN S.A.U.	EDUKIONTZI HIGIENIKOAK 2025/11/01-2026/01/31	512,35
				<b>40.540,45</b>

**d) Lankidetzaren hitzarmenean zehaztutako gastuekin ez dator bat**

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
30/12/2025	2025/2089	DEBEGESA	LANKIDETZA HITZARMENA KUDEAKETA GASTUAK 3. ORDAINKETA	26.666,00
				<b>26.666,00</b>

**ERABAKIA:**

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Alkateak erreparo orria gainetik azaldu du.

**4.2.- UDALAREN 2026KO 1. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZTEA.**

**1. KREDITU ALDAKETA  
ALKATEAREN PROBIDENTZIA**



ESPEDIENTE HASIERA

Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jo denez gero, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan jasotakoaren arabera, hau ebatzi dut:

Hasiera eman dakiola aurrekontuko gastu partiden arteko kreditu transferentziaren espedienteari, aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari jarraiki. Honako tramiteak jasoko ditu espedienteak: Alkatearen proposamena eta adostasuna; finantzaketaren ziurtagiria; kontu-hartzailearen txostena; egonkortasun txostena; eta organo eskudunaren onarpena.

Zumaian,  
Alkatea

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**  
Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1000.500.929.00.01 2026	KREDITU GLOBALA	60.899,47	4.861,41	56.038,06
<b>GUZTIRA</b>		<b>60.899,47</b>	<b>4.861,41</b>	<b>56.038,06</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.643.166.00.01 2026	OIKIA SANEAMENDUA- DESJABETZEEN KUDEAKETA	37.000,00	4.861,41	41.861,41
<b>GUZTIRA</b>		<b>37.000,00</b>	<b>4.861,41</b>	<b>41.861,41</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,  
Alkatea

**KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA**



Nik, Nerea Azpillaga Echevarriak, Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, egiaztatu ondoren Alkatearen proposamenean ageri diren Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partidetako kredituak,

**Ziurtatzen dut:**

Transferitzeko edo gutxitzeko proposatu diren kredituak, 4.861,41 eurokoak guztira, erabilera libreko saldoei dagozkiela. Izan ere, organo eskudunak ez ditu erabiltezin deklaratu, eta horien kargurako gasturik ez da baimendu. Gainera, kreditu-atxikipena egin zaie transferentzia finantzatzeko.

Aipatutako kredituen artean ez dela ageri sarrera finalistekin finantzatutakorik.

Eta espedientearen jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut Alkatearen aginduz eta oniritziz.

Zumaian,

Alkatea

Kontu-hartzailea

Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak 2026ko urtarilaren 29ko Dekretuan agindutakoa betez, eta 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua b) letran ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

**TXOSTENA**

Udal honen aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egiteko izapidetzen ari den kreditu aldaketarako espedienteaz aztertu dut.

Aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egiteko Alkateak prestatu duen proposamena aztertu dut.

Aipatutako proposamena 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 23. artikuluan aurreikusitakoan oinarritzen da, eta Aurrekontua Gauzatzeko 2026. urteko Arauarekin bat dator.

- a) Ezin da zuzenean kreditu global horren aurka gastu baimenik eman.
- b) Kreditu globalak jatorritik erabili behar dira beti; kreditu globala ezin da inolaz ere gehitu, gero udalbatzak baimendu eta aldaketa onetsi ezean, beti ere hasierako ordainketa-kredituen %5eko muga errespetatzen dela.
- c) Kreditu globaletik egiten diren transferentzietan ez zaizkie aplikatuko foru arau honetako 29.artikuluko xedapenak.

Kreditu globala erabili ahal izateko baimena udalburuak eman beharko du, aurrekontuak gauzatzeko arauak horri buruz ezartzen duenari kalte egin gabe.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.



Zumaian,  
Kontu-hartzailea

**TXOSTENA**  
**AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK**  
**ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituenak".
- 2025eko azaroaren 10ean Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusiak aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunari buruz bidalitako ohar berriemailea.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: Zumaiako Udalaren 2026ko aurrekontuaren 1.kreditu aldaketaren onarpena.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

ZUMAIAKO UDALA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Zumaiako Udalaren 2026ko aurrekontu bateratuaren 1.kreditu aldaketaren onarpen espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 61.024,28 euroko superabita du.

Sarrerak (1-7)	20.440.516,20
Gastuak (1-7)	20.996.069,56
	-555.553,36
SEC doikuntza DGFL	616.577,64
	61.024,28

SEC doikuntzari dagokion kopurua aurreko ekitaldietan Zumaiako Udalak PRTS eta PSTD dirulaguntzaei dagokio.

-Erkibe lorategia (PSTD 2023): 271.635,72€



- Santio Arrapala (PSTD 2023): 128.364,28€
- Moilaberi birgaitzeko (PSTD 2022): 150.643,05€
- Komentuko 2.Fasea (PRTS): 65.934,59€

Hori horrela izanik, Zumaiako Udaleko aurrekontu bateratuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2026ko helburua.

**Finantzen iraunkortasuna**

2026ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2026an likidatutako sarrera arrunten % 3,35 izango dela aurreikusten da. Jarraibidearen arabera, kalkulua egiteko 2026ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, ekitaldian exekutatutako abalak barne, eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta kenduko zaizkio ekitaldian itzultitako abalak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Fondoarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: *“2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituen” erabakiko helburua betetzen du.*”, baita Finantza Politikako zuzendari nagusiak 2025eko azaroaren 10ean bidalitako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunari buruz bidalitako ohar berriemaileetan zehaztutakoa ere.

*“2026an toki entitateen zor publikoak bete beharko duen helburua da 2026-12-31n ez izatea 2026ko likidatutako sarrera arrunten %70 baino handiago”*

Zor bizia: %3,35.

Sarrera arruntak: 19.062.734,20

Zorra mankomunitatearekin, Urtetako zaborteziaren kudeaketa: 503.539,02€ (27.974,39\*18).

IDAE mailegua: 135.392,49

2026/12/31rako aurreikusitako zorra: 638.931,51€

**Gastuaren araua**

Kalkuluak egiteko 2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa eta 2025eko azaroaren 10ean Gipuzkoako Finantza Politikako zuzendari nagusiak bidalitako ohar berriemaileak zehaztutako izan da kontuan.

*\*2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa “2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituen” ondorengo mugak onartu ziren:*

2024	2025	2026	2027
2,60%	3,20%	3,30%	3,40%

*\*Finantza Politikako zuzendari nagusiak 2025eko azaroaren 10ean bidalitako aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunari buruzko ohar berriemailearen arabera:*

*“2026an toki entitateen gastu konputagarria ezingo da izan 2025eko gastu konputagarria baino %3,3 handiagoa. Gastu konputagarriaren barruan ez da konputatzen beste administrazio publikoen transferentzia bidez finantzatutako 2026ko gastuaren zatia, sarrera edozein urtetakoa izanda ere.*

2026 gastu konputagarriaren muga: 19.763.790,12€



Gastu konputagarria: 19.021.471,93€

Hori dela eta, Zumaiako Udalaren 2026ko 1.kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek betetzen du gastu arauaren 2026rako helburua. Hala ere, zenbateko hau, 2026ko aurrekontua likidatzen denean berriro kalkulatu beharko da, eta muga gaindituko balitz plan ekonomiko finantzarioa egin beharko litzateke.

### 3- ONDORIOAK

Zumaiako udalaren 2026ko aurrekontuaren 1.kreditu aldaketaren onarpen espedienteak betetzen ditu aurrekontu egonkortasuneko, eta gastu konputagarriko 2/2012 Lege organikoak ezarritakoa baita 2024ko uztailaren 16ko Ministro Kontseiluen akordioa: "2025-2027 ekitaldirako aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak, eta 2025erako Estatuaren aurrekontuaren gastu finantzarioaren muga zehazten dituen" ere.

Zumaian,  
Kontu-hartzailea

### ALKATE EBAZPENA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2026-KALD-000001-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 23. artikuluan ezarritakoarekin.

### EBATZI DUT

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK	60.899,47	4.861,41	56.038,06
	<b>GUZTIRA</b>	<b>60.899,47</b>	<b>4.861,41</b>	<b>56.038,06</b>

#### Kreditua jasoko duten gastuak (altak)



Zumaiaiko Udala

2026IAKU0002

Kapitulua	Izena	Eguno kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	37.000,00	4.861,41	41.861,41
	<b>GUZTIRA</b>	<b>37.000,00</b>	<b>4.861,41</b>	<b>41.861,41</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Zumaian,

Alkatea



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Alkateak kreditu aldaketa jakinarazi du.

#### 4.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate ebazpenen berri eman du Alkateak.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hemezortzi direnean eta nik, idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2026ko martxoaren 13an

IDAZKARIA  
Gorka Urgoiti Aguirre

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA  
[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) • e-mail: [udala@zumaia.eus](mailto:udala@zumaia.eus)

EKS | CSV: ESKU7d351272-cb35-447d-b1c7-08d334713079



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026IAKU0002-Dokumentu orokorra/Documento genérico ()